

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Javier Urra psikologoak 2013ko Frantzisko Xabierkoa saria jaso du

Saria Barcina Lehendakariak eman dio Madrilgo Nafarroaren Eguneko ospakizunetan

Lunes, 16 de diciembre de 2013

Javier Urra psikologoak gaur arratsaldean jaso du, Madrilen, Foru Gobernuak egindako ibilbide profesional zabal eta oparoa eskertzeko emango dion 2013ko Frantzisko Xabierkoa saria. Saria Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak eman dio Conde Duque kultura-zentroan izan den ekitaldi batean, [2013ko Nafarroaren Eguna ospatzeko programaren](#) barruan.



Barcina Lehendakariak Frantzisko Xabierkoa Saria eman dio Javier Urra psikologoari.

Urra Lizarran jaio zen 1957. urtean. Psikologian doktorea da, Madrilgo Complutense Unibertsitateko Etika eta deontologiako irakaslea eta haurtzarolari eta psikologia forenseari buruzko hainbat libururen idazlea. Ardura garrantzitsuak hartu ditu bere gain, esate baterako, Madrilgo Komunitateko adingabeen defendatzailearena 1996 eta 2001 artean eta Adingabeen defendatzaileen Europako sarearen lehendakariarena 1999 eta 2001 artean.

2009an eratu zen Frantzisko Xabierkoa sariaren helburua Foru Komunitatetik kanpo Nafarroa aurrerapenaren, ongizatearen eta estatuko eta nazioarteko gizartea hobetzen duen gizarte gisa ausarki erakusten duten pertsonen lana aintzatestea da.

Aurreko urteetan, Lizarrako [Pablo Hermoso de Mendoza](#) (2009) burzikariak, Leringo [Pedro Ábrego](#) sukaldariak (2010), [Ignacio Zoco](#) futbolaria eta [María Ostiz](#) abeslaria senar-emazteek (2011) eta [Salvador Estébanez](#) kargua oraindik zegoenean Madrilgo Nafarroako Gobernuaren ordezkaria zenak jaso dituzte sariak.

Ekitaldiarekin amaitu da 2013ko Nafarroaren Eguna ospatzeko programa. Javier, Leyre eta Pablo Arnáez anai-arrebek kontzertua eskaini dute. Biolin-jotzaile nafarrak dira, musikako goi-mailako musika-ikasketak kalifikazio gorenak lortuta amaitu zituzten eta Londres, Viena, Lausana (Suitza) eta Rotterdamgo (Herbehereak) nazioarteko ospe handiko zentroetan prestakuntza espezializatua egiten ari dira.